

ALKATEARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, Miramongo biribilgunetik metro gutxira dagoen BU11 lineako autobus-geralekuaren egoera dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

BU11 lineako autobus-geltokia, Oriamendi pasealekuan dagoena, Galarreta bidean, duela 30 urte baino gehiago jarritako Miramongo biribilgunetik metro batzuetara, erabat abandonatuta dago, eta, hala, puntu beltz, segurtasunik gabeko eta iritsezin bihurtu da.

2019an, Donostiako erabiltzaile batek Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Udalari egindako kexa zela-eta, Aldundiak erantzun zuen bat zetorrela kexa aurkeztu zuenarekin: geldialdi horrek, beste hainbatek bezala, ez zituela betetzen hura erabiltzeko beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak, baina, ohituraz, erabiltzen jarraitzen zela, norbaitek eskatuz gero. Hala ere, jakinarazi zioten garelekuak jartzea eta mantentzea ez zela Mugikortasun Departamentu horren eskumena, baizik eta dagokion udalarena, eta honek Errepide Departamentuaren oniritzia behar zuela garelekuak foru-errepide batean kokatu behar izanez gero. Mugikortasun Departamentuak, jarraitzen zuen, bere zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonentzat interesgarritzat jotzen dituen garelekuak prestatuak erabiltzen ditu. Haien ustez, aipatutako garelekuak erabiltzeari utzi ahal izango litzaioke Buruntzaldeko emakida esleitu eta zerbitzu berriak ezarritakoan.

Donostiako Udalak ez zion ezer erantzun.

Joan den uztailaren 1ean, Buruntzaldeko garraio publikoaren emakida berria jarri zen martxan, baina garelekuak funtzionatzen jarraitzen du.

Toki horretan espaloi bat dago, baina estua da, eta ez dago egoera onean. Ez dago argirik. Ez dago zebra-biderik autobus-geltokira eramaten duenik. Hala ere, galtzadan tokia sobran dago espaloia zabaltzeko, argiak jartzeko, are bidegorri bat egiteko ere, egungo erreak estutuz gero.

Joan den urrian, udal talde honek horren ~~X~~ inguruko interpelazio bat aurkeztu zuen, eta Gobernu Taldeak erantzun zigun geraleku ~~X~~ hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpean dagoela.

Horiek horrela, mozio hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari aipatutako tokian autobus-geltoki bat ezartzeko, segurtasun-baldintza guztiak betetzen dituen, bai eta argiak eta zebra-bide bat jartzeko ere.

Donostia, 2021eko azaroaren 4a

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularreko bozeramailea